

‘Sagar biltzailea’, Nafarroako Antzerki Eskolan, igandean

IRUÑEKO UDALAK ETA ANTZERKI ESKOLAK ANTOLATUTAKO LEHIAKETAREN GARAILE IZAN DA

Haurrei zuzendutako antzezlanean, Martina protagonistak sentimenduen mundura egiten duen bidaia kontatzen da

MIREN MINDEGIA

IRUÑEA. Iruñeko Udalak eta Nafarroako Antzerki Eskolak antolatutako XIX. haurrentzako antzezlanen lehiaketaren garaile izan den *Sagar biltzailea*, martxoaren 27an (igande honetan) eskainiko da, NAE-ren egoitzan bertan (San Agustin kalea, 5), arratsaldeko 18.30etan.

Estreinaldi eguna Antzerkiaren Nazioarteko Egunean bertan izatea nahi izan dute antolatzaileek, Javier Perez-Eguaras Nafarroako Antzerki Eskolako zuzendari teknikoaren erranetan. Sarrerak saioa hasi aurretik erosi ahal izango dira, eta 6 euro balio dituzte. Martxoaren 28tik 30era, Udalak antolatutako kanpainan izena eman duten ikasleentzako hurrek *Sagar biltzailea*-ren emanaldiak ikusteko aukera izango dute.

Beatriz Miró eta Monika Torrek idatzitako antzezlanak 2010ean antolatutako haurrentzako lehia-

keta irabazi zuen, Paz Prieto kultura kontseilariaren erranetan, “bere kalitate dramatiko eta literarioarengatik”.

Mikel Mikeok zuzendutako antzezlanean, sistema informatiko bati esker perfektua den mundu batean bizi den Martina neskatza da protagonista. Mundu perfektu hori pertsona bihotza kenduz lortu da. Martinaren amonak, ordea, mundu hartatik atera eta neskatzak bere bihotza konpondu dezan mundu ez hain perfektu batera abiatzeko gomendioa luzatzen dio. Bidaia horretan, Martinak Mario ezagutuko du, sagar biltzailea, eta honek bihotzak konpontzen dituzten fabrikaraino eramango dio.

Perez-Eguarasin hitzetan, antzezlanaren muina “mundu teknokratikoaren eta artearen munduaren arteko bidaia” da. Gainera, bertan lan egin duten guztien gaztetasuna azpimarratu nahi izan du, “bai



Javier Perez Eguaras (NAE), Paz Prieto (Kultura zinegotzia) eta Aitor Odriozola (aktorea). ARGAZKIA: OSKAR MONTERO

zuzendariarena, bai idazleena, baita aktoreena ere”. Naiara Carmona, Maialen Díaz, Maitane Goñi, Aitor Odriozola eta Laura Villanueva dira Monika Torre eta Beatriz Miró idatzitako eta Mikel Mikeok zuzendutako lan honen antzezleak.

Iruñeko Udalak eta Nafarroako Antzerki Eskolak antolatutako haurrentzako antzezlan lehiaketaren XIX. edizioaren irabazlea izan da *Sagar biltzailea*, euskarazko arloan. Erdal hizkuntzan, ordea, Xabier Lopezek idatzitako *Billy, el niño que perdió una estrella* suertatu da garaile. Antolatzaileek lehiaketaren XX. edizioa martxan dagoela gogoarazi nahi izan dute,

FITXA TEKNIKOA

- **'Sagar biltzailea'**. Martxoaren 27an (igandea), Nafarroako Antzerki Eskolan, arratsaldeko 18.30etan. Sarrera: 6 euro.
- **Zuzendaria**. Mikel Mikeo.
- **Egileak**. Beatriz Miró eta Monika Torre.
- **Antzezleak**. Naiara Carmona, Maialen Díaz, Maitane Goñi, Aitor Odriozola eta Laura Villanueva.
- **Jantziak**. María Sagüés.
- **Argia eta soinua**. Luz y Fer.
- **Eszenografia**. Atornapión.
- **Diseinu grafikoa**. Eztabaida.

izan ere, lanak maiatzaren 16a arte aurkezterik badago. Urtero bezala, lehiaketa bi arlotan banatzen da azken edizio honetan ere: erdarazko eta euskarazko testuak. Sariari dagokionez, 2.200 euro eta datorren urtean Nafarroako Antzerki Eskolan lana antzezteko aukera luzatzen da.

Miró eta Torre TDG Laperola Nafarroako teatro konpainiaren zuzendari eta antzezle dira, urrenez urren. Miró hainbat sari jaso zituen 2008an *Me quiero vivir* lanarengatik, eta Torrek antzezlan desberdinetan parte hartu izan du, baita Helena tabernaren *La buena nueva* filmean ere.

KRITIKA > LIBURUA

Sans Dieu

LINH JAUNAREN BILOBA

Jatorrizko izenburua: La petite fille de Monsieur Linh (2005). Egilea: Philippe Claudel. Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun. Argitaratze urtea: 2010. Argitalerria: Igel.

ANDER ARANA

ERBESTEA, bakartasuna, adiskidetasuna, maitasuna, inkomunikazioa, gerra, eromena, heriotza, piztuera... Ez da erraza, ez, hain orrialde gutxitan hainbeste gai iradokitzea eta irakurleari hausnarraren ibiltzeko hainbeste amu jarzea, baina Philippe Claudel-ek,

Nancy-tik gertu dagoen Dombasle-sur-Meurthe herrixkako idazle frantziarrak (1962), hori eta gehiago lortu du. Lehendik ere irakurleen eta kritikarien aitortza zeukan Claudel-ek, zeina irakasle lanetan, gidoilari lanetan eta are zinema-zuzendari lanetan ere ibili baita. Ondo ezagunak dira, esate baterako, *Les Âmes grises* eleberria (2003) eta *Il y a longtemps que je t'aime* filma (2008). Postura egingo nuke arrakasta hori, bere lanaren literatur balio ukaezinez ez ezik, Claudelen zintzotasunari eta jarrera etikoari zor zaiela neurri handi batean. Izan ere, Claudel, lanbidez irakaslea, ohituta dago pre-

so dagoen jendearekin eta gizartean baztertutakoekin lan egiten, eta badaki, hortaz, zer sentitzen duen bakarrik dagoenak, zer egoera berri eta arrotz batera egokitzeko inoren laguntzarik ez duenak.

Burua galdurik, alderrai... Hala xe dabil, hain zuzen ere, Linh jauna, eleberriko protagonista nagusia. Bere herria utzi behar izan du gerrak ia ezer gabe eta ia inor gabe utzi duelako; aldamenean, “larruzko maletatxo higatua, arropa maiztua besterik ez daukana barrenean, eguzkiaren argiak ia erabat ezabatutako argazki bat eta oihalezko poltsatxo bat, eskukada bat lur sartu baitu bertan. Horixe baizik ezin izan du eraman. Eta ninia, jakina”. Atzean utzi behar izan ditu arbasoen lurra, hizkuntza, usainak... eta itsasontzi batean sei asteko bidaia egin ostean iritsi

da izenik gabeko, usainik gabeko eta bihotzik gabeko lur arrotzera, zeinak infernua baitirudi. Bere hizkuntzan mintzo diren gainontzeko errefuxiatuekin elkar ulertzeko modurik ez, eta parkean eza gutu duen Bark jauna izango da gizalegez hartuko duen bakarra, pertsona baten moduan, eta ez pampina bat balitz bezala; alegia, berak Sang Diu ttikia hartzen duen bezala. Sang Diu, sorterriko hizkuntzan “egunsenti goxoa” esan nahi duen deitura, baina Bark jaunarenean, aldiz, Sans Dieu. Ez da harritzekoa, ez, Claudel berak adierazi izana eleberri hau tolerantziaren aldeko kantu unibertsal delako, Jainkoaren itzala aurkitu ezin dabilen guztien aldekoa.

Igela argitaletxe nafarrak urteak daramatza –hogeitik gora urte, oker ez banago– mundu osoko lite-

ratura euskaratzen eta itzultzaileak langintza horretarako akuitlatzen, eta hori ere aipatzekoa eta txalotzekoa da, itzultzaileen ugartasun horrek kalte ez ezik mesede egiten diolako lanen kalitateari. Besterik dira inprentako akatsak eta akats tipografikoak, baina horiek ekidin ezinak omen dira, ala ez? Ez dugu etsiko, ezta?

Oraingo honetan Itziar Diez de Ultzurrunen esku utzi du Claudelen eleberri hunkigarri hau euskaratzeko ardura, izu-laborriaren eta samurtasunaren artean kulunkarazten diguna, eta bete-betean asmatu du iruindarrak Claudelen “apaingarri astunik gabeko prosa xume eta samur, dotore eta poetikoa” euskaraz ematerakoan, beselako itzulpenak egitean aspalditik zeukan eskarmentu guztia baliatuta.

EXPOSICIÓN

Palazuelo

París, 13 rue Saint-Jacques (1948-1968)

DEL 11 DE MARZO AL 29 DE MAYO DE 2011

La exposición plantea un recorrido por la primera etapa creativa de la obra de Pablo Palazuelo, a través de cerca de 80 obras, muchas de ellas inéditas, que analiza y muestra los años en los que el pintor residió en París.

Consulta el programa pedagógico en www.museooteiza.org/

FUNDACIÓN MUSEO FUNDAZIO MUSEOA

JORGE OTEIZA

Gobierno de Navarra

2012 CONTIGO AVANZAMOS

Fundación Juan March

www.march.es

MUSEOOTEIZAMUSEOA

CALLE DE LA CUESTA 7 • 31486 ALZUZA

T. 948 332 074 | www.museooteiza.org

HORARIO VERANO (15 JUN - 15 SEP)

MARTES A SÁBADO DE 11,00 A 19,00 H

DOMINGOS Y FESTIVOS DE 11,00 A 15,00 H

LUNES CERRADO

HORARIO DE INVIERNO (16 SEP - 14 JUN)

MARTES A VIERNES DE 10,00 A 15,00 H. SÁBADOS DE 11,00 A 19,00

DOMINGOS Y FESTIVOS DE 11,00 A 15,00 H

LUNES CERRADO

VISITAS GUIADAS GRATUITAS

DOMINGOS 11,30 H CASTELLANO

12,30 H EUSKARA

EXPOSICIÓN

Manu Muniategiandikoetxea

Rod nº9

10 DE FEBRERO-29 DE MAYO DE 2011

Colabora:

Mancamunidad Comarca de Pamplona

Manikomunitatea

FUNDACIÓN MUSEO FUNDAZIO MUSEOA

JORGE OTEIZA

2012 CONTIGO AVANZAMOS

Gobierno de Navarra